

“Topiko(a) bihurtu” dela-eta

Mitxel Kaltzakorta Mentxaka

Artikulu honetan egileak erakutsi gura du Euskaltzaindiaren “Topiko(a) bihurtu” arauak, eta beroni buruz Miren Azkaratek emaniko argibideak, badaukatela oraindino zer orraztu eta zer osatu. Horretarako, han-hemengo idatzizko eta ahozko adibideak ematen ditu erakusgarri. Edozein modutan ere, artikulu-egileak plazaratu hutsa egiten ditu zeintzuk puntu dauden orraztu eta osatu beharrean, eta eginkizun lagatzen ditu orrazketa eta osaketok.

In this article the author presents the rule on “Topiko(a) bihurtu” by Euskaltzaindia, and details fixed by Miren Azkarate, making clear that they must be improved and completed. For that purpose he gives written and oral examples. Anyway, all the author does is to summarise points to improve and to complete, and he leaves the task for others to do.

1. Sar hitzak

Euskaltzaindiak emana du “Topiko(a) bihurtu” erabakia edo araua 1994an, eta oraintsu (1997) agertu da *Eusker*a aldizkarian artikulua bat Miren Azkaratek idatzirikoa, eta bertan argibide batzuk ematen ditu araua argitzen eta zehazten dutenak.

Badut ustea aipatutako arauak behar dituela orraztu eta osatu bat, Jagon sailburuaren argibideak argibide. Hala ere, argi eta garbi utzi gura dut ez natorrela arauaren latz guztiak leundu-gozatzera; gaiari bertze norabide bat emanaz gero konformatuko nintzateke. Horra, beraz, handi-handika esanda zer egin gura nukeen lantxo honetan, zelako helburua daukadan nagusiki.

Aipatutako helburua xeheago adierazi guran, batetik, emanen ditut Euskaltzaindiaren araua bera eta M. Azkarateren harrezkeroko argibideak; bestetik, adieraziko dut, nire irudiko, zer geratzen den orrazkizun eta osakizun arauan bertan eta geroztiko argibideetan.

Hona hemen, lehenengo eta behin, araua bera, hartua Euskaltzaindiaren “Topiko(a) bihurtu” artikulutik eta argitaratua *Araua*k karpetan (1994, 217 or.) eta, jarraian, beroni buruzko argibideak, argitara emanak *Eusker*a aldizkariko “Euskaltzaindiaren araugintzan” (1996, 3, 566 or.):

ARAU:

Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: perpaus baten barnean bi nor-sintagma agertzen direnean, eta horietako bat bestearen predikatu osagarria denean, *bihurtu* aditzak mugagabeen eskatzen du predikatu osagarri hori: *ura ardo bihurtu zuten*. Hala ere, sintagma izen soil batek osatu beharrean beste ingurukariz janzten denean, izenondoak, izenlagunak, adjetibo konparatiboak, perpaus erlatiboak, e.a. erabiliz, orduan artikulua eskatzen du askotan. Kasua, berriz, beti absolutiboak erabiliko da: *emakumerik ederrena bihurtu zen*.

ARGIBIDEAK:

Arauaren testuan aipatzen diren adibideek nahasmena sortu dute antza denez; izan ere bat daramaten adibideak [gero arauaren artikulua irakurtzean ikusiko ditugunak] badaudela adierazi nahi izan da, baina inola ere ez forma horiek gomendatu. Adibide-sorta hori, bihurtu aditzaren predikatua mugaturik ere erabili izan dela erakusteko zen batik bat. Beraz, *emakume eder(a)* bihurtu edo *bihotz sendoko gizon(a)* bihurtu.

Euskaltzaindiak “bihurtu” aditzaren predikatu osagarria aztertzen du. Eta emaniko arauan izen sintagma (IS) soilik ageri da aipatu funtzioan: batetik, izen hutsa dagoela (*ura ardo bihurtu zuten*); bestetik, izena ingurukariren batez osatua dagoeneko (*emakumerik ederrena bihurtu zen*).

Arauaren bigarren partean, hau da, izen+ingurukaria egitura duten predikatu osagarrietan, emaniko erabakia ez dago ondo zehaztuta bertan ageri den

“askotan” berba lausoa dela-eta. Eta M. Azkarateren argibideak argitzen-edo datoz puntu ilun hau, argibideotan garbiri lagatzen baita predikatu osagarria osatuta dagoenetan izenaz gain izenondo (*emakume eder(a)* bihurtu) eta izenlagunez (*bihotz sendoko gizon(a)* bihurtu) joan daitekeela artikulua duela edo ez. Baina argibideotan ez zaigu deus erraten bertze ingurukariez jantziriko predikatu osagarriez.

Euskaltzaindiaren arauan ez zaigu ezelako erabakirik ematen predikatu osagarria osatua dagoeneko adjektibo sintagma baten bidez (AdjS). Baina artikulua izenburuko (*Topiko(a) bihurtu*) *topikoa* zer da, izena edo adjektiboa, edo biak? Ez dago dudarik, nik uste, euskarazko *topiko* berba gaztelaniazko *topico*-tik datorrela eta ez frantsesezko *topique*-etik. Eta espainolezkoa adjektibo (izenondo) hutsa da Real Academia de la Lengua Española-ren ustez¹, baina Ibon Sarasolaren inprentatik harako hiztegiaren arabera izena eta izenondo².

Euskaltzaindiaren artikulua barruan zelanbaiteko araua ematen zaigu topiko berba dagoelarik predikatu osagarri:

Arrazoi zuen Mitxelenak ohi zuen ironia mingotsez idatzi zuenean: “Gramatika aldetik, nolana ere, ongi baino hobeki gabiltza. Badakigu, behintzat, *geniezazkizuekeen* esaten, baldin ederki esana badago. Baita ere, gainera, *topikoa bihurtu da* (ze arraio bihurtu ote da *topiko + hori,...” (MEIG VII, 29. OR.)

Bistan da *topikoa, hitz mugatu hori, salatzen duela; ez hain bistan, apika, zer esan nahi duen kako arteko “ze arraio bihurtu ote da *topiko + hori” hitzekin. Hauxe, dudarik gabe: TOPIKOA ongi izana izateko subjektu izan behar lukeela eta hori zer bihurtu den adierazi (“amets bihurtu da TOPIKOA”, esate baterako), baina perpaus hori esan zuenaren asmoa ez zelarik hori, baizik “beste zerbait TOPIKO bihurtu” zela esatea, Mitxelenak esaten dio mugagabeen ipini beharko zukeela hitz hau:

ametsa TOPIKO bihurtu da

Topiko hitzari buruzko arau hau, edo dena delakoa, lausoa da, zehaztu bakoa, bertan ageri den “(...) ipini behar *zukeela* (...)” dela bide.

Gainera, Mitxelenaren esaldian ez dago argi *topiko* terminoa zer den: izena edo izenondoa. Izentzat hartuz gero, Euskaltzaindiaren koadro barruko arauan argi eta garbi esaten delarik mugagabeen doala izena (ura ardo_ bihurtu zuten) ez du funtsik errateak *topiko* hitzaren gainean “(...) *mugagabeen ipini beharko zukeela* (...)”. Eta izenondotzat joz gero, ez zaigu araurik eman koadro barruan ezelako adjektibo kontuan.

Adierazi dudalarik Euskaltzaindiaren arauaren mamia, hona hemen zertzuk helburu ditudan behar honetan:

1. «Tópico, ca. Adj. Perteneciente a determinado lugar». *Diccionario de la Lengua Española*. Vigésima edición. Espasa-Calpe, S.A.

2. «Topiko. Iz. Eta izond (1977). (nart.) Egia arrunta, askotan errepikatzen den esamoldea edo ustea». *Euskal Hiztegia*, 1996, Kutxa Fundazioa.

1. Erakustea predikatu osagarria izen hutsez osatua dagoelarik ez doala beti mugagabea.

2. Erakustea ez dagoela argi artikulua aukeran erabil daitezkeen edo ez, predikatu osagarria jantzia badago izen eta ingurukari izenondo edo ingurukari izenlagunen batez.

3. Predikatu osagarria adjektibo sintagmaz (AdjS) jantzita dagoela ere aztertuko dut gaingiroki:

- a. Adjektibo hutsezkoa dela.
- b. Adjektibo+ingurukariren bat dela.

4. Baita besterik ere, artikuluan zehar adieraziko dudana.

Behin egin diedalarik kukutxo bat Euskaltzaindiaren arauari eta beroni buruzko argibideei, argi geratu dateke badagoela zer zuzendu-osatu. Dena den, eta aurrerago esan bezala, ez dut dena zuzendu-osatzeko asmorik, gai ere ez naiz izan eta. Gaiari harrotu bat emanda nahikoa dut.

Esandakoa adierazteko lehenengo eta bat analizatuko dut Euskaltzaindiaren artikulua arguentazioa eta, gero, neurea eman.

2. Euskaltzaindiaren arguentazioa

Atal honetan aztertuko dut Euskaltzaindiaren artikulua bera, zertan dagoen zuzendu-osatu beharra. Horretarako, lehenik, artikulua bera emango dut eta, bigarrenik, aipatu artikulua arguentazioa bera jorratu.

2.1. Euskaltzaindiaren artikulua

Hona hemen Euskaltzaindiaren araua edo erabakia, *Euskaltzaindiaren Arauak (1)* karpetatik hartua (217 or.). Artikuluari kendu dizkiot adlatiboari (-ra) eta inesiboari (-n) buruzko adibide eta erreferentziak. Batetik, bat natorrelako deklinabide-kasu bion gainean esandakoarekin eta, bestetik, aipaturiko kasuokin ez duelako zerikusirik behar honetan jorratu nahi dudanak.

40

TOPIKO(A) BIHURTU

Euskal mugagabearen erabileraren legeak ikertu dituztenek egitura hau aipatzen dute, besteak beste: perpaus baten barnean bi nor-sintagma ager daitezke, eta askotan horietako bat besteren predikatu osagarria izen ohi da eta mugagabea joan. Hona Etxepareren bertso lerro hau:

Othoi, launa, enguztazu LAGUN zure sailduiak
(Etxepare, I,72)

“Santuak emaikidazu lagun”, alegia. Asko dira egitura hori onartzen duten aditzak, hain iragangaitzak zein iragankorrek: *joan, egon, sartu, jarri, gelditu, egin, hautatu, izendatu, eduki, saldu* eta abar. Hona horietako batzuk:

ene arreba neska zahar gelditu da
ene laguna apaiz egin da
etxeko alaba neskame joan da
gazteena hautatu dute alkate
Peruk gazteak hartu ditu lagun

Aditz horien artean bat *bihurtu* da:
ikatz urre *bihurtu* *zuen*
eguna gau *eta* gaua egun *bihurtu* *da*
adiskidea etsai *bihurtu* *zaio*

Ikusten den bezala, izen-sintagma bat beti mugagabea da eta izen-sintagmari dagokion predikatua da. Izen-sintagma mugatua, berriz, batzuetan subjektua da, baldin aditza iragangaitza bada: “*hura* neskame joan da”; besteetan objektua, baldin iragankorra bada: “*aita* alkate hautatu dugu”. Ez zaio axola. Izen-sintagma bata izan, bestea izan, predikatua beti mugagabean izango da.

Arrazoi zuen Mitxelenak ohi zuen ironia mingotsez idatzi zuenean: “Gramatika aldetik, nolana ere, ongi baino hobeki gabiltza. Badakigu, behintzat, *geniezazkizuekeen* esaten, baldin ederki esana badago. Baita ere, gainera, *topikoa bihurtu da* (ze arraio bihurtu ote da *topiko + hori,...” (MEIG VII, 29. OR.)

Bistan da **topikoa*, hitz mugatu hori, salatzen duela; ez hain bistan, apika, zer esan nahi duen kako arteko “ze arraio bihurtu ote da *topiko +hori” hitzekin. Hauxe, dudarik gabe: TOPIKOA ongi izana izateko subjektu izan behar lukeela eta hori zer bihurtu den adierazi (“amets bihurtu da TOPIKOA”, esate baterako), baina perpaus hori esan zuenaren asmoa ez zelarik hori, baizik “beste zerbait TOPIKO bihurtu” zela esatea, Mitxelenak esaten dio mugagabean ipini beharko zukeela hitz hau:

ametsa TOPIKO bihurtu da

Buruenean honen guziaren ikaskaia hau da: horrelako egituretan izen-sintagma bat mugatua dela beti, bestea berriz, predikatu delakoa, mugagabea.

Hori da dotrina orokorra eta gehienetan betetzen dena. Gauzak nahasixeago dira, ordea, aditza *bihurtu* denean. Honekin ere predikatu delakoa gehienetan mugagabea da, bai, eta aski arrazoi dirudi horrek euskara baturako mugagabea gomendatzeko, baina ezin uka batzuetan mugatua ere ager daitekeela. Modu askotara, gainera: ia beti absolutiboan; baina adlatiboan eta inesiboan ere bai (hauek guztiak *OEHTik* hartuak dira):

Hau Inglaterrako duke-herri BAT bihurtzen zen.
... bihotz sendoko gizona haur BAT bihurtua
...ornament ederrenetarik BAT bihurtu zen
...ornamentik ederrenA bihurtu baita
...arnas huts-hutsA bihurtu al banendi
Zure bizi moldea guretzat damugarriagoA bihurtzeko
...bihurtu ziraden buztin kolorekoAK

...biurtu ziran demonio itxusi nazkagarriAK
...borroka bi anaiei artekoA biurtu
...siñieste gaiztokoA biurtuko litzeke
(...)

Horrek ez gaitu gehiegi harritu behar, perpaus guziek ez baitute mugagabe izateko erraztasun edo egokitasun berdina; aitzitik nolapaiteko hierarkia-edo seinala baitaiteke. Predikatu (izen soila) denean arautzat eman daiteke mugagabea dela: "Eguna gau bihurtu da". Baina izena bestelako ingurakariz (hala nola, izenondo, izenlagunez, partizipioz, adjetibo superlatiboz nahiz konparatiboz, eta abar) jaztean, hor goiko lehen hamaika exenpluetan bezala, araua joera hutsa gertatzen da eta mugagabearen orde z predikatua mugatua duten salbuespenak nahitaezkoak dira.

(...)

Hortaz, hau da Euskaltzaindiaren erabakia: perpaus baten barnean bi nor-sintagma agertzen direnean, eta horietako bat bestearen predikatu osagarria denean, *bihurtu* aditzak mugagabearen eskatzen du predikatu osagarri hori: *ura ardo bihurtu zuten*. Hala ere, sintagma izen soil batek osatu beharrean beste ingurukariz janzten denean, izenondoak, izenlagunak, adjetibo konparatiboak, perpaus erlatiboak, e.a. erabiliz, orduan artikulua eskatzen du askotan. Kasua, berriz, beti absolutiboa erabiliko da: *emakumerik ederrena bihurtu zen*.

(Euskaltzaindiak, Donostian, 1995.eko uztailaren 28an onartua)

2.2. Argumentazioaren gorabeherak

Hona hemen, nire ustez, zein puntutan nagusiki egiten duen loka argumentazioak:

1. Oraturik argumentazioaren zutabe nagusiari, hau da, predikatu osagarria mugagabean joan behar duelakoari, erran behar dut osatu beharra dagoela, mugatuan ere deklina daiteke-eta. Hona hemen esaldi batzuk erakusgarri:

A. Izen hutsa denean

maisua jarri omen zioten ofizioa (Uztapide, *Lengo ...*, 176)

B. Izenondo hutsa denean

Haizea dabil handia

C. Izen+ingurukaria(k)

Alemanak gizon pusketa mardulak ikusten genituen (Lasarte, *Enbor...*, 16)

D. Adjektibo+ingurukaria(k)

Haizea dabil oso handia

Esaldiotan “maisua”, “haizea”, “pusketa mardulak” eta “oso handia” predikatu osagarriak mugagatuan daude deklinaturik. Beraz, predikatu osagarria beti mugagabearen deklinatzen den ustea erdi ustela da.

2. Helduta argumentazioaren beste habeetariko bati, alegia Mitxelenaren autoritateari, maisuak idatzi, idatzi zuen «Baita ere, gainera, topikoa bihurtu da (ze arraiu bihurtu ote da “topiko” hori),...» (MEIG VII, 29. or.) baina baita honako esaldi hau ere: «Azorin zinema-zale amorratua bihurtu zaigu» MIH 130 (OEH, V, 435. or.) ere. Eta hondarreko perpaus honen berri ez digu eman Euskaltzaindiak, osterantzean ez dut uste esango zukeenik

Bistan da **topikoa*, hitz mugatu hori, salatzen duela [Mitxelenak]; ez hain bistan, apika, zer esan nahi duen arako “ze arraiu bihurtu ote da *topiko+ hori” hitzekin. Hauxe, dudarik gabe: *topikoa* ongi esana izateko subjektu izan beharko lukeela eta hori zer bihurtu den adierazi (“amets bihurtu da topikoa”, esate baterako); baina perpaus hori esan zuenaren asmoa ez zelarik hori, baizik “beste zerbait TOPIKO bihurtu” zela esatea. Mitxelenak esaten badio mugagabearen ipini beharko zukeela hitz hau: *ametsa TOPIKO bihurtu da*

Izan ere, Mitxelenaren bigarren esaldiari (“Azorin zinema-zale amorratua bihurtu zaigu”) orraztuño bat eginez gero aditzean: “Azorin zinema-zale amorratua bihurtu da”, bertoko *zinema-zale amorratua* predikatu osagarria ez da subjektua, eta ez doa mugagabearen ere, mugatuan baino. Eta oker ote dago? Ez dut uste, arteza dagoela deritzot.

2. Arauan bertan esaten zaigu izenak ingurukariren bat badu lagun predikatu funtzioan, orduan artikulua baliatzen dela “askotan”. Ilungune hau argiturik geratzen da M. Azkarateren artikuluan izenondoa eta izenlaguna direlarik ingurukariak, baina ez beste ingurukarien kasuan. Berbarako, har ditzagun hurrengo perpausok:

Nik gura nuen txalet_ bihurtu dut nire etxe zaharra
Laura Lekeitioko emakumerik ederren_ bihurtu zen

Erranen nuke esaldiok bitxiak direla ahozkoan, baina ondo daude eraturik Euskaltzaindiaren erabakiaren arabera, lar oker ez banago. Izan ere, ez zaigu deus zehatzik esaten lehen adibideko predikatuaz, berau ingurukari erlatiboaz osatua, ez arauan, ezta argibideetan ere; bergauza erran daiteke bigarren adibideko predikatuaz, ingurukari superlatiboaz jantzia.

3. *Topiko* berba dela-eta, ez dago behar beste argi zelan erabili behar den aipatu hitza: artikulua duela edo gabe.

(...), Mitxelenak esaten dio mugagabearen ipini beharko zukeela hitz hau: *ametsa TOPIKO bihurtu da*

eta, gainera, sarreran esandako moduan ez dago argi Mitxelenaren esaldian zer den topiko dontsu hori, izena edo adjektiboa.

3. Nire azterketa

Hona hemen zertzuk puntu landu nahi nituzkeen atal honetan:

1. Agirian utzi gura nuke zer dagoen orrazteko eta osatzeko predikatu osagarria izen-sintagma (IS) delarik.

2. Sartu-irten bat egin nahi dut predikatu osagarrian, berau adjektibo sintagma (AdjS) dela.

Hona, hortaz, zelako ordenan garatuko ditudan IS-ak eta AdjS-ak, “bihurtu” eta beste aditz batzuk dituztela lagun:

- A. Izen hutsa
- B. Adjektibo hutsa
- C. Izen+ingurukaria(k)
- D. Adjektibo+ingurukaria(k)

Iker dezagun eskema punturik puntu.

3.1. Izen hutsa

Puntu honetan argi eta garbi esaten zaigu predikatu osagarriak beti joan behar duela mugagabeen. Baina ez da hala beti, eta hona hemen, berbarako, adibide bi Uztapideren *Lengo egunak gogoan* liburutik jasoak:

maisua jarri omen zioten ofizioa (176)
ekaitza jarri zidan gaia (164)

Ez dut uste ezelako dudarik dagoenik “maisua” eta “ekaitza”, izenak eurok, *ofizioa* eta *gaia* izenei buruz predikatzen dutenik hurrenez hurren. Eta mugatu singularrean daude deklinaturik.

Euskaltzaindiak *Peruk gazteak hartu ditu lagun* esaldia eman du, besteak beste, mugagabearen aldeko joeratzat. Eta beroni bikain deritzot, baina *Peruk gazteak hartu ditu lagun***AK**, bertan predikatu osagarria mugatuan, oker ote dago?

Eta “bihurtu” aditzarentzat ere, nik uste, asma daitezke adibide egokiak artikulua eskatzen dutenak predikatu osagarriko izenetan. Hona, esate batera, bat:

Telebisten helburua dirua irabazte**A** bihurtu da.

Esaldi hau begitantzen zait ez dagoela zuzen artikulua barik: “...dirua irabazte_
bihurtu da”.

Edo gure Akademiak bere argumentazioaren alde agerturiko *ikatza urre bihurtu zen* dela bide, txarto ote dago eraturia *Olatz urre***A** *bihurtu da*? OEHN bertan ere Xalbador bertsolari zenduaren adibide bat ageri da ingurukari bako izenez

osatua eta “bat” determinatzailea lagun duela: *Horra Mattin, gure ustez bihotz sendoko haur bat bihurtua!* Xa. Odol 163 (OEH, V, 435. or).

3.2. Adjektibo hutsa

Dakigunez, adjektibo mota bi daude: izenondoak eta izenlagunak. Aurrenik, lehenaren gorabeherak jorratuko ditut; eta jarraian, bigarrenarenak.

Izenondo kontuan Euskaltzaindiak adierazi du “topiko bihurtu” esan beharko litzatekeela eta bidenabar izartxoak gaineratu dio *topiko* berbari: «Bistan da *topiko, hitz mugatu hori salatzen duela (Mitxelenak)». Edozertara ere, adierazi dut hitzaurrean ez dagoela behar bezain argi delako *topiko* hori zer den. Hemen adjektiboa balitz moduan jokatuko dut.

Baina hona hemen adibide bat, adjektiboa predikatu osagarrian, oso esan-guratsua Piarres Lafittek zenduak emana bere *Grammaire basque* gramatikan:

anaiak onak bilhakatu ziren (123)

Agerian dagoenez, adjektiboa mugatuan (onAK) dago, eta ez mugagabeen. Gainera, “bilhakatu” aditzak Euskaltzaindiaren *emakumerik ederrena bihurtu zen* esaldiko “bihurtu”-k zer adiera duen, huraxe bera dauka.

Lafitteren esaldia zuzen badago, ondoko hau ere artez egon behar:

Anaiak onAK bihurtu ziren

Euskaltzaindiak esaten digu mugagabeen egon beharko lukeela *topiko* izenondoak; ostera, P. Lafittek *on* izenondoa artikulatu eta guzti darabil aipatu funtzioan. Nork arrazoia bion arteko sokatiran? Ez dakit. Nire ustez biok, uste baitut adiera bat duela artikulatu bakoak eta beste bat, artikulatu eta guztikoak. Edozein modutan ere, nik hemen erakutsi hutsa egin nahi dut izenondoak mugatuan deklina daitezkeela predikatu osagarri funtzioan.

Orain araka dezagun zer jokabide duen predikatu funtzioko izenondo hutsak beste aditz batzuen bidez. Hona han-hemengo adibide batzuk:

A. Idatzizkoak

Gorago aipatu iparraldetiar gramatikariaren gramatikakoak:

begiak ederrak ditutzu (123)

petentak erosi zituen ... ederrak (122)

gezur batzu igorri zauzkun aphairu hortan ... gaitzak (122)

zaldi bat handia bazeramaten (122)

Eibarko euskararen esakerak eta bestelako berezitasun batzuk liburukoak:

Nai beste diru euki arren, beti agertu zan baldresa(90)
Buruzalia gazte-gaztetatik agertu zen (96)
Txatxarra dago dittuan urtietarako (145)
Gaurko okelia zaila dago (149)

Beste idazle batzuenak:

-Arrayetan, etzaude makala (P. M. Urruzuno, 11)
...baserri bat hutsa zegoen an auzoan (B. Ayerbe, 35)

Eta bazterrak adibide aurki daiteke sakon arakatuz gero euskal liburuak, batez ere ahozkotik harakoak edo antzekoak.

B. Ahozkoak

Hara, barbarako, neure adibide batzuk:

Kepak andrea hartu du politA
Haizea handiA dabil
HelduAK erosi ditut madariak
ItzeIA egin du beharra Euskaltzaindiak
Zergak kentzen dizkigute ikaragarriAK
Anderea politA etorri da

Eta edozenbat eman ditzaket izenondoa mugatuan dagoela, ukatu barik izenondoa mugagabeen baliatzen denik ere.

Izenlagunaz den bezainbatean, hona adibide batzuk, idatzizkoak eta ahozkoak hurrengo hurrengo:

Lekutakoa ekarri du emaztia (*Eibarko euskararen ...*,122)
DenetarikoAK daude adibideak (Artikulu hau, 3.C. puntuan)
(Aztergaiak) soinekoa behar du (...) noranahikoA eta XXI. menderakoA (Artikulu hau, azken-azken esaldia)
Kepak andrea hartu du Bilbokoa
Maitek diamantezkoak erosi ditu belarritakoak

“Bihurtu” aditza dela bitarteko, adibide bi aurkitu ditut Mitxelenaren hiztegian:

Jainkoa baztertu egin du, alperrikako biurtu. Vill Jaink 31(Orotariko ..., V, 435)
Gure sofrikarioak berak merezimenduzko bihurtu ditu. JesBih 450(Orotariko ..., 435, V)

eta ahozkoan hona hemen neuk beren-beregi sorturiko adibide bat:

Urrezko eraztuna burdinazkoA bihurtu du urliak

Esaldi honetan erabiliko genuke ahoz predikatu osagarrian izenondoa artikulua barik (*burdinazko* ___)?

3.3. Izen+Ingurukaria(k)

“Bihurtu” aditza dela-eta, Euskaltzaindiaren artikuluan zenbait adibide ageri dira mugatuan daroatzatenak predikatu osagarriko izen-sintagmak:

...arnas huts-hutsA biurtu al banendi
...biurtu ziran demonio itxusi nazkagarriAK

Horra nahiko frogatzen mugatuaren alde Euskaltzaindiak berak eskainia. Gainera, gorago aipatu dudan Mitxelena adibidea ere gehi dakieke:

Azorin zinema-zale amorratua bihurtu zaigu

Osterantzeko aditzen jokabidearen berri jakiteko badira zenbat-nahi adibide, han-hemen-hortikoak.

A. Idatzizkoak

1. *Enbor Zarraren ezpalak* (M. Lasarte)

Alemanak gizon pusketa mardulak ikusten genituen tarteka(16)

2. *Eibarko euskararen esakerak eta bestelako berezitasun batzuk* liburukoak.

Neskato anpolarixa dago zure alabia(80)
Oilanda politta daukazu alabia(130)
Soldadutzatik etorri danetik arriolari andixa eginda dago(84)
Gizato galanta ein jatzu semia(109)
Ume perkatxa dator zuen ori(135)

B. Ahozkoak

Andereñoa etorri zaigu neska politA
Zuzendaria ekarri digute gizon artezA

“Bihurtu” aditza dela tarteko, nire lan honen sarreran aipaturiko hurrengo adibideok ba ote ematerik artikulua barik?

Nik gura nuen txalet_ bihurtu dut nire etxe zaharra
Laura Lekeitioko emakumerik ederren_ bihurtu zen

Normalean ez ote dira erabiltzen mugatuan? Egungo zein euskaldunek erabiltzen ote ditu mugagabeen?

Puntu honetan “bihurtu” nahiz beste aditz batzuen bidez eman baditut ere hainbat adibide predikatu osagarriko izen-sintagmak, mugagabeen deklinatzen daitezkeela frogatzen dutenak beste zenbat-gura ere eman ditzaket frogatzen dutenak aipatu egitura erabil daitezkeela mugatua. Denetarikoa daude datuak.

3.4. Adjektibo + ingurukaria(k)

Adjektibo izenondoen arloan “bihurtu” aditzaren bidezko adibiderik ez-eta, lehenago emaniko Piarres Lafitteren *anaiak onAK bilakatu ziren* esaldia hartuz gero eredutzat, trankil asko sor ditzakegu izenondo+ingurukaria(k) egiturazko adibideak:

Anaiak on-onak bihurtu ziren
Anaiak oso onak bihurtu ziren
Anaiak mundukorik onenak bihurtu ziren³
(...)

Bestelako aditzak direla bide, hona adibide batzuk:

A. Idatzizkoak

Neurririk gabe dabilzan bertsolariak ere, oso nabarmenak gelditzen dira (Uztapide, M. Lasarteren *Gordeak neuzkanak*-en Hitzaurrean, 13)
..., etxea oso zaharra geneukan (B. Ayerbe, 35)
...egur zar aiek busti ta oso legunak gelditu (B. Ayerbe, 35)

B. Ahozkoak

Heldu-helduAK erosi ditut madariak
Oso itzelA egin du beharra Euskaltzaindiak
Andereñoa ondo politA etorri da

Izenlagunen sailean Euskaltzaindiak berak ematen dizkigu adibide batzuk “bihurtu” aditzarekin:

...biurtu ziraden buztin kolorekoAK
...borroka bi anaiei artekoA biurtu

Bertzelako aditzen bidez ere hona bat:

Nik urte osoan bazkari ederra egiten dut itxura antzekoa, eta bera San Joan egunez (E. Z. O., Lasarte, 77)

3. Esaldiotan “bihurtu” barik “egin” zabalago dabilelakoan nago Bizkaia-berbetan eta giputz-hizketan behintzat.

4. Konklusioa

Orain artekoak ikusita, hona zertzuk otutzen zaizkidan eskutan darabildan ikergaiari buruz:

1. Ez da egia osoa predikatu osagarriak mugagabeen joan behar duen kontua izen hutsez osatuta dagoenean. Baditu, behintzat, jokabide bi oso diferenteak: bata, mugagabekoa (ikatz ure__ bihurtu zen); bestea, mugatukoa (Olatz ureA bihurtu da). Ikertu egin behar da sakon zergatik eta zelako kondizioetan jazotzen diren bata eta bestea.

2. Izen+ingurukaria(k) egituraren gorabeheran kasu bitarako ematen zaigu argiro irtenbidea (badago predikatu osagarria erabiltzerik artikulua duela edo gabe, bietara): bata, izenak izenondoa duela ardatz; bestea, izenlaguna. Baina bertze ingurukariren bat erabiliz gero ez zaigu erabakirik ematen. Eta beste behin itauntzen dut: lehenago aipaturiko adibide biok

Nik gura nuen txalet_ bihurtu dut etxea

Laura Lekeitioko neskarik ederren_ bihurtu zen

predikatu osagarriek dutela artikulua barik, onargarriak ote? Eta bertze mota bateko ingurukaririk badago? Puntu honek osatu bat behar du.

3. Eta M. Azkarateren artikuluan *bihotz sendoko gizon BAT bihurtu da* eta *emakume eder BAT bihurtu da* sekuentziak BAT dela-eta gaitzetsi egiten direlarik, zer deritzegu *gizon BAT bihurtu da bihotz sendokoa* eta *emakume BAT bihurtu da ederra* hitz-kateei?

4. Jorra bat eman diot predikatu osagarriari beronen funtzioan adjektibo hutza (izenondo edo izenlagun) dagoela. Eta erakutsi uste dut mugagatuan erabiltzen dugula, gaur egun bederen. Baina erakutsiak erakutsi, puntu honek jorratu bat behar du sakona.

5. Predikatu funtzioan dagoela adjektibo + ingurukaria(k) egitura, gaitza dirudi mugatuzko adibideak kausitzea. Bestalde, badirudi izen+ingurukaria(k) egiturarentzat Jagon Sailburuaren bidez emandako arauak (mugatuan zein mugagabeen, bietara) balio duela adjektibo+ingurukaria(k) egiturarentzat ere. Puntu hau ere aztertu baten beharrean dago.

Oraindino, nik uste, gure aztergaiak segitzen du josita bateko tarratadaz eta besteko urratuz. Eta konpontzeko ez da nahikoa hemengo txaplata, hango ipingia eta besteko adabakia. Soinekoa behar du berritua, noranahikoa eta XXI. menderakoa.

Bibliografia

- Argoitia J. A. eta abar, (1995): *Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk*.
- Ayerbe B., (1995): *Nere mundualdia*, Etor.
- Azkarate M., (1996): "Euskaltzaindiaren araugintza", *Euskera*.
- Euskaltzaindia (1994): *Euskaltzaindiaren ARAUAK*, Euskaltzaindia.
- Lafitte P., (1979): *Grammaire Basque*, Elkar.
- Lasarte M., (1995): *Enbor zarraren ezpalak...*
- , (1975) : *Gordeak neuzkanak*, Auspoa.
- Michelena L., (1992): *OEH, V*, Euskaltzaindia eta abar.
- Urruzuno P. M., (1995): *Ipuinak*, Euskal Editoreen Elkarte.
- Uztapide (1975): *Lengo egunak gogoan*, Auspoa.